

Getxo >MEETING<

Urriaren 11ko Getxo MEETING

Geure burua grabatuko dugu? Lortu zeure negozioari buruzko eduki erabilgarria (partekatzeko edo entseatzeko).

Bideo komertzialei buruzko saiotik zure negozioarako atera genituen ondorioen eta jarraibideen berri emango dizugu.

Bertaratu ziren askok aipatu zuten sarritan pentsatu izan dutela beren enpresa, negozio edo komertzioari buruzko bideoa grabatzea, baina kamera aurrean zaila dela modu naturalean azaltzea nortzuk diren edo enpresak zer egiten duen. Lotsa, beldurra eta hitz egiteko arnasa faltatzea oso ohikoak dira kameraren aurrean jartzen garenean.

Hori dela eta, lehenik eta behin hausnarketa bat egin genuen geure ikuslegoarekin partekatu nahi genuenari buruz. Hausnarketa hori lotuago dago enpresaren estrategiarekin; bideoa egiten hasi aurretik ezinbestekoa da hasierako planteamendua prestatuta edukitzea.

Lehenengo bideoa egituratzeko urrats hauek eman genituen:

- 1- **Helburua:** Edukia partekatzeko asmoa baduzu, helburu bat daukazulako da; ikusgarriagoa izatea, bezero potentzialengana iristea, eta abar. Horrek salmenten gehikuntza ekarriko du. Goazen urratsez urrats.
- 2- **Norentzat?** Nori interesa dakiok partekatuko duzun edukia? Pentsa ezazu nor dagoen beste aldean, nolako gustuak dituen, zer egiten duen, zer behar duen. Logikoena da aurrean duzuna zure bezeroa izatea; hortaz, ziur informazio ugari duzula haiei buruz. Kontuan izan.
- 3- **Gaia.** Aukera ezazu zertaz hitz egingo duzun. Zure negozioari buruzko hainbat gai izan ditzakezu, eta gero zeure estrategian egituratu eta programatu ditzakezu.
- 4- **Izenburua:** Asmatu izenburu bat, erraza eta oso zehatza. Lagungarriak izan daitezke blogen izenburuak; adibidez, nola aldatu gitarraren sokak?, nola josi parpailadun gona?, eta abar. Pentsa nolako aholkuak ematen dizkiezun kontratatzen zaituztenei edo zeure dendan sartzen direnei. Ziurrenik askoz pertsona gehiagorentzat ere izango dira baliagarriak, eta zure edukia biral bihur daiteke.
- 5- **Balioak.** Gogoan izan zeintzuk diren transmititu nahi dituzun balioak; apunta itzazu, kontuan eduki.

- 6- **Mezua.** Egin ezazu bideoan kontatu nahi duzunaren gidoia. Esaldi laburrak erabili eta hitz egin zuka eta guka; pentsa nor duzun aurrean eta saiatu beti hizkera positiboa erabiltzen.
- 7- Foku guztia salmentan jarrita duten bideoak egitea gehiago kostatzen zaigu eta ibilbide askoz laburragoa dute. Aukeratu beste eduki mota bat.

Kontatu nahi duzunaren lehenengo gidoia duzun unetik bertatik has zaitezke praktikatzen.

- Aukeratu agertoki egokia, argiztapen eta soinu ona dituen.
- Irrika adierazi. Diozun horretan sinesten baduzu eta zeure burua ondo saltzen baduzu, konfiantza gehiago transmitituko diezu ikus-entzuleei.
- Irribarre egin.

Urrats horiei jarraikiz egin genituen lehenengo bideoak. Parte hartzaileak askoz erosoago sentitu ziren bestelako edukia partekatzen (ez horren zentratua produktuaren salmentan): hartzaile gehiagorentzako interesgarri izan daitezkeen aholkuak eta trukuak, esaterako.

Oso sentazio onak izan ziren, eta hainbati ideiak bururatu zitzaizkien YouTube bezalako kanaletan eta sare sozialetan partekatzeko ikus-entzunezko edukia sortzen hasteko.

Beraz, ezin izan bazenuen bertaratu baina zeure negoziarako bideoak egin nahi badituzu, pentsatzen eta praktikatzen has zaitezke. Sakatu REC!

Getxo MEETINGen hurrengo saioa urriaren 25ean izango da, eta zeure enpresaren, produktuaren edo zerbitzuaren mikrohitzaaldi bat egiteko aukera izango duzu. Gogoratu: apuntatu Getxolanen.

Hurrengora arte!